

## III. Atala / Sección III

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Administración Autónoma del País Vasco**Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila****Bizkaiko Okindegiak sektoreko hitzarmen kolektiboa  
(hitzarmen kodea zenbakia 48001785011981).**

Erabakia Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Bizkaiko Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Okindegiak sektoreko hitzarmen kolektiboaren ultraaktibitatearen handitzea erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001785011981).

*Aurrekariak*

Telematikaren bidez aurkeztu da, ordezkarietza honetan, patroien ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak sinatutako hitzarmen kolektiboa.

*Zuzenbideko oinarriak*

*Lehenengoa:* Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko EBO) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua —Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezarzen duena (2013ko apirilaren 24ko EHAA)— dionarekin bat etorri eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko EBO) —hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak— lotuta.

*Bigarrena:* Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT:

*Lehenengoa:* Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Bizkaiko Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta alde-ai jakinaraztea.

*Bigarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Bilbon, 2016ko uztailaren 21 ean.—Bizkaia Lurraldeko Ordezkaría, Josu de Zubero Olaechea

ERANSKINA

**BIZKAIKO OKINDEGIEN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN  
INDARRALDIA LUZATZEKO AKORDIOA  
(2010-2014RAKO HITZARMEN KOLEKTIBOA)**

Bizkaiko Okindegien Hitzarmen Kolektibo berriaren batzorde negoziatzailearen gehiengoaren erabakiz (batzordeko enpresa-ordezkaritzaren eta ordezkarietza sozialaren aldeko botoarekin hartutako erabakia, hitzarmenaren eranskin gisa jasotako akordio honetarako egindako bilkuraren aktan jasotakoaren arabera), akordio hau hartu da, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginiaren 86.3 artikuluen babesean: Bizkaiko Okindegien Hitzarmen Kolektiboaren Aurreraeragina Luzatzea (2010-2014rako hitzarmen kolektiboa). Izan ere, hitzarmen horren 2. artikuluen arabera, 18 hilabetez luzatu behar da indarraldia, hitzartutako amaieratik aurrera, hots, 2014ko abenduaren 31tik aurrera. Bada, indarraldi hori 2016ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, denbora-tarte horretan hitzarmen hori ordezkarietza duen hitzarmen berria negoziatu ahal izateko.

ELK/CCOO.—LAB.—Ogi Fabrikatzaile eta Banatzaileen Bizkaiko Elkarte

(III-223)

**Departamento de Empleo y Políticas Sociales****Convenio Colectivo del Sector Panaderías de Bizkaia (código de convenio número 48001785011981).**

Resolución del Delegado Territorial de Trabajo, Empleo y Políticas Sociales de Bizkaia del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, por la que se dispone el registro, publicación y depósito de la ampliación de ultraactividad del Convenio Colectivo del Sector Panaderías de Bizkaia (código de convenio 48001785011981).

*Antecedentes*

Por vía telemática se ha presentado en esta delegación el convenio citado, suscrito por la representación patronal y la representación sindical.

*Fundamentos de derecho*

*Primero:* La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015 de 23 de octubre («BOE» de 24 de octubre de 2015) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 19.1.g del Decreto 191/2013, de 9 de abril («BOPV» de 24 de abril de 2013) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero, («BOPV» de 15 de febrero de 2011) y con el Real Decreto 713/2010 de 28 de mayo («BOE» de 12 de junio de 2010) sobre registro de convenios colectivos.

*Segundo:* El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

*Primero:* Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Bizkaia del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo:* Disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 21 de julio de 2016.—El Delegado Territorial de Bizkaia, Josu de Zubero Olaechea

ANEXO

**ACUERDO DE AMPLIACIÓN DE VIGENCIA  
DEL CONVENIO COLECTIVO DE PANADERÍAS  
DE BIZKAIA 2010-2014**

Por decisión mayoritaria de la Comisión negociadora del nuevo Convenio Colectivo de Panaderías de Bizkaia, adoptada con el voto favorable de la representación empresarial en ella, y el de la mayoría de la representación social, como consta en el acta de la sesión de la que este acuerdo constituye su anexo, se ha acordado al amparo del artículo 86.3 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores ampliar la ultraactividad del Convenio colectivo de Panaderías de Bizkaia 2010-2014, que según su artículo 2 se extendía durante 18 meses a partir del final de la vigencia pactada, 31 de diciembre de 2014, para prolongarla hasta 31 de diciembre de 2016 a fin de negociar durante ese tiempo de modo efectivo el nuevo convenio colectivo que lo sustituya.

CCOO.—LAB.—Asociación Provincial de Fabricantes y Expendedores de Pan de Bizkaia

(III-223)